

Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazio estatistikoa izandako irizpide-aldaketei buruzko oharrak. 2024

Ohar honetan deskribatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ur-masen egoerari buruzko informazio estatistikoa inguruan estatistika-organoari aldeztu aurretik emandako informazioetan egondako irizpide-aldaketei buruzko zenbait alderdi.

UR-MASEN ERROLDA

Gaur egun, ur-masen identifikazioa, mugaketa, izaera eta tipologia 35/2023 Errege Dekretuan ⁱ dago jasota, hau da, hirugarren plangintza-zikloaren plan hidrologikoetan (2022-2027). Lehen, informazio hori 1/2016 Errege Dekretuan ⁱⁱ zegoen jasota, hau da, bigarren plangintza-zikloaren plan hidrologikoetan (2015-2021).

Aurrekoa kontuan hartuta, 2024an, masak hirugarren plangintza-zikloaren plan hidrologikoaren arabera ebaluatu dira, eta aurreko urtekoak eguneratu egin dira (2019tik 2023ra), ebaluazio-irizpideak Plan Hidrologiko berriaren arabera homogeneizatzeko.

2021eko eta aurreko urteetako EAEko ur-masen egoerari buruzko estatistika-informazioan, lurrazaleko 166 ur-masa eta lurpeko 36 ur-masa hartu ziren kontuan EAEn, 1/2016 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz.

Hala ere, EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko eta hurrengo urteetako estatistika-informazioan, EAEn presentzia nabarmena duten lurrazaleko eta lurpeko ur-masak hartu dira kontuan, 35/2023 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz:

- 35/2023 Errege Dekretuaren arabera, Ibaiak kategoriako 135 ur-masek dute nolabaiteko presentzia EAEn. Hala ere, Ibaiak kategoriako zazpi ur-masa ez dira kontuan hartu EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko eta hurrengo urteetako estatistika-informazioan. Horren arrazoia da Ibaiak kategoriako sei masa modu adierazgarrian garatzen direla EAETik kanpo, eta haien garapena hutsala dela EAEn ⁱⁱⁱ, eta ur-masa bat goi-ibarreko tarteetan kokatzen dela eta oso garrantzi txikia duela ^{iv}. Horren guztiaren ondorioz, EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko eta hurrengo urteetako estatistika-informazioan Ibaiak kategoriako 128 ur-masa jaso dira. 2021. urteari dagokion informazioan, berriz, Ibaiak kategoriako 127 ur-masen berri eman zen.

ⁱ 35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Mugapen Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren berrikuspena onartzen duena.

ⁱⁱ 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Mugapen Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren berrikuspena onartzen duena.

ⁱⁱⁱ Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoan: Asón II, Agüera II; Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan: Añarbe ibaia eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoan: Molinar eta Saraso arteko laguntza, Ayuda de Saraso eta Río Rojo artekoa, eta Ega I, Istora eta Urederra artekoa.

^{iv} Ebroko demarkazio hidrografikoan: Albiña masa Albiñako urtegiraino.

- Lurrazaleko eta lurpeko uren beste kategoria batzuetako gainerako masei dagokienez, EAEko ur-masen egoerari buruzko 2022ko eta hurrengo urteetako estatistika-informazioan, aurreko urteetako ur-masen errolda bera jaso da, hau da, 12 urtegi, 9 aintzira eta hezegune, 14 trantsizio-ur, 4 kostaldeko ur eta 36 lurpeko ur.
- Zadorra ur-masak, Santa Engraziatik Dulantziraino (ES091MSPF243_001), 2022. urterako eta hurrengoetarako soilik ditu erregistroak. Izan ere, masa sortu berria da Plan Hidrologiko berriaren arabera, eta horregatik ez da ebaluatu 2019-2021 urteetan.

Beraz, EAEko ur-masen egoerari buruzko informazio estatistiko honetan (2024), masen erroldak lurrazaleko 167 ur-masa eta lurpeko 36 ur-masa biltzen ditu guztira.

	Masaren kategoria	Demarkazioa	Masaren izaera	1/2016 Errege Dekretuko masa kopurua	35/2023 Errege Dekretuaren masa kopurua
Lurrazaleko urak	Ibaiak	Kantauri Mendebaldea	Naturala	3	3
		Kantauri Ekialdea	Oso eraldatua	20	21
			Naturala	70	69
		Ebro	Naturala	34	35
	Urtegiak	Kantauri Ekialdea	Artifiziala	1	1
			Oso eraldatua	8	8
		Ebro	Oso eraldatua	3	3
	Aintzirak eta hezeguneak	Kantauri Ekialdea	Naturala	1	1
		Ebro	Artifiziala	2	2
			Naturala	6	6
	Trantsizioko urak	Kantauri Ekialdea	Oso eraldatua	4	4
		Kantauri Ekialdea	Naturala	10	10
	Kostaldeko urak	Kantauri Ekialdea	Naturala	4	4
	GUZTIRA			166	167
Lurpeko urak				2	2
				19	19
				2	2
	GUZTIRA			36	36

EGOERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egoeraren ebaluazio-irizpideekin lotutako eguneratzeei eta ñabardurei buruzko informazioa xehetasunez aurkezten da Uraren Euskal Agentziaren webgunean, "*Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko programak*" atalean, "*Azken txostenak*" ^v azpiatalean. Jarraian, egoeraren ebaluazioari lotutako kontzeptuen laburpena aurkezten da, baita egin diren irizpide-aldaketak ere

Lurrazaleko urak

817/2015 Errege Dekretuan ^{vi}, adierazten denez, lurrazaleko ur-masen egoera zehazteko, haien egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren baliorik okerreana hartu behar dira kontuan.

^v <https://uragentzia.euskadi.eus/informazioa/azken-txostenak/webura00-01040102seguimiento/eu/>

^{vi} 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, lurrazaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dituena.

817/2015 Errege Dekretuaren arabera, lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa sailkatzeko, lurrazaleko ur-masa mota eta kategoria bakoitzari aplikagarri zaizkion kalitate-elementu biologikoen, kimikoen eta fisiko-kimiko eta hidromorfologikoen euskarri-adierazleak (II. eranskina) eta lehentasunezko substantzietarako ingurumen-kalitateko arauak (IKA) aplikatu behar dira (V. eranskina), bai eta dagozkien plan hidrologikoetan arroko kutsatzaile espezifikoetarako ezartzen diren ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ere.

Egoera ekologikoaren ebaluazioa bat dator 817/2015 Errege Dekretuan adierazitakoarekin eta horrekin lotutako laginketa-, analisi- eta ebaluazio-protokoloekin. Hala ere, aldaketa aipagarri batzuk egin dira, hala nola interkalibratzeko azken erabakia ^{vii}, lurrazaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzen gida metodologiko berriak ^{viii} eta ^{ix}, laginketarako protokolo eguneratuak idaztea, adierazleak aztertzea eta ebaluatzea, eta ebaluazio-sistema berriak gehitzea.

817/2015 Errege Dekretuan adierazten denez, lurrazaleko uren **egoera kimikoa** kalitatearen adierazpen bat da, lehentasunezko substantzien eta IV. eranskineko beste kutsatzaile batzuen ingurumenaren kalitateari buruzko arauen betetze-mailak ematen duena.

Oro har, lurrazaleko ur-masen **egoera, egoera ekologikoa eta kimikoa** ebaluatzen sistemak eta EAEko ur-masen egoerari buruzko estatistika-informazioari buruz estatistika-organoari emandako azken informazioan erabilitako sistemak berdinak dira. Hala ere, zenbait aldaketa egin dira, eta aldaketa horiek, oro har eta aurretiazko ebaluazioekin alderatuta, exijentzia-maila handiagoa eskatzen dute egoera/potentzial ekologiko ona do hobe lortzeko, hau da, ingurumen-helburuak betetzeko. Hauek dira, hain zuzen, aldaketak:

- **Plan hidrologikoen berrikuspenaren** ondoriozko aldaketak, lurrazaleko ur-masa batzuen izaerari eta mugaketari dagokienez.
- Ibaiak kategoriako ur-masen kasuan, **baldintza fisiko-kimiko orokorrak ebaluatzen metodologia** aldatu egin da 2023tik, eta exijentzia-maila handiagoa da ^{xi}. Planteatutako metodologiaren arabera, inplikaturako adierazleetarako hiru alditako batez besteko balioa kalkulatu behar da (ur altuak: urtarila, otsaila, martxoa eta apirila; ur ertainak: maiatza, ekaina, azaroa eta abendua; ur baxuak: uztaila, abuztua, iraila eta urria), eta ezarri du urteko ebaluazioa bat datorrela ebaluatutako hiru aldien ondoriozko ebaluazio okerrenarekin. Balorazio-metodo berria sentikorrak da balio puntual oso altuekiko, eta horiek, besteak beste, honako hauek eragiten dituzte: solido eseki askoko ekaiz gogorrak eta euri-jasak, eta estres hidrikoak ur baxuetan edo tenperatura altuetan.

vii 2024/721 (EB) Erabakia, Batzordearena, 2024ko otsailaren 27koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentarauarekin bat etorriz, estatu kideen kontrol-sistemen sailkapenaren balioak ezartzen dituen interkalibratze-eraketaren ondorioz, eta (EB) 2018/229 Erabakia indargabetzen duena.

viii Ingurumeneko estatu-idazkariaren jarraibidea, plangintza hidrologikoaren hirugarren zikloan ur-masen egoera ebaluatzen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen. 2020ko urriaren 14a

ix Azaleko eta lurpeko uren egoera ebaluatzen gida MITERD
https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/agua/temas/estado-y-calidad-de-las-aguas/guia-para-evaluacion-del-estado-aguas-superficiales-y-subteraneas_tcm30-514230.pdf

x <https://www.uragentzia.euskadi.eus/informazioa/eae-lurrazaleko-ur-masen-egoeraren-jarraipena-egiteko-protokoloak-lagin-bilketa-eta-laborategi-eta-indize-eta-neurrien-kalkuluak-egiteko/webura00-01040102seguimiento/eu/>

xi Orain arte, pH-aren eta oxigeno-ehunekoaren ebaluazioa urteko batez besteko balioetik abiatuta egin da, eta urteko 75 pertzentiletik abiatuta gainerako aldagaietarako. Metodo honen bidez, aldi batean parametro baten edo batzuen emaitza txarra izatea ez da beste aldi batzuetan emaitza hobeak lortzearekin batez bestekoa egingo, eta, hala badagokio, konpentsatu egingo da.

Aldaketa horien ondorioz, informazioa emateko, lurrazaleko ur-masa horien egoera berriz ebaluatu da 2019-2024 aldirako, eskuragarri dauden datuetan oinarrituta. Horrek esan nahi du, kasu batzuetan, aldatu egin direla, bai egoera ekologikoaren bai egoeraren ebaluazioari dagokionez, aldez aurretik emandako estatistika-informazioa.

Lurpeko urak

Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 32. artikulua arabera ^{xii}, lurpeko ur-masen **egoera** zehazteko, haien egoera kuantitatiboaren eta egoera kimikoaren baliorik okerrenea hartu behar dira kontuan.

Lurpeko ur-masen **egoera kuantitatiboa** sailkatzeko, Uraren Esparru Zuzentzarua Ezartzeko Estrategia Bateratuaren 18. gidan garatutako metodologiari jarraitzen zaio ^{xiii}. Ebaluazio-sistema hori ez da aldatu, EAEko ur-masen egoerari buruzko estatistika-informazioaren inguruan estatistika-organoari emandako azken informazioari dagokionez.

Bestalde, lurpeko ur-masen **egoera kimikoa** sailkatzeko, parametro gisa kutsatzaileen kontzentrazioak eta eroankortasuna erabiltzen dituzten adierazleak erabiliko dira, eta 2006/118/EE Zuzentzarua 1. eranskinean definitutako kalitate-arauak erabiltzen dira ^{xiv}, hau da, aplikatu beharreko plan hidrologikoetan definitutako ur-masa bakoitzari aplikatu beharreko atalase-balioak, guztiak ere 35/2023 Errege Dekretuan jasotakoak. Horrez gain, eta plan hidrologiko berrietan atalase-baliorik ez duten parametroetarako, Uraren Euskal Agentziaren 2010eko maiatzeko "EAEko Lurpeko Uren Zuzentzarua II. eranskineko substantzietarako erreferentzia-mailak ezartzea EAEko Lurpeko Ur Masetan" txostenean finkatutako balioak sartzea erabaki da.

Beste gogoeta batzuk

Urte jakin batean ur-masa batentzat datu nahikorik ez dagoenean, estatistika-organoari EAEko ur-masen egoerari buruzko estatistika-informazioa emateko, aurreko urteetako egoeraren ebaluazioaren berri emango zaio. "Ebaluatu gabe" diagnostikoa, berriz, aurreko urteko informaziorik ez dagoenean bakarrik adierazten da.

xii 907/2007 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua onartzen duena.

xiii 2000/60/EE Zuzentzarua, uren politikaren arloan jarduteko esparru komunitario bat ezartzen duena.

xiv. 2006/118/EE Zuzentzarua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, lurpeko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babesteari buruzkoa